

2019-09-24ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2019ko irailaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2019-07-23).

Udalbatzak, aho batez, 2019ko uztailaren 23ko bileraren akta onartu du.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/155 DEKRETUTIK 2019/201 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2019/155 dekretutik 2019/201 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA
2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1º KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

2019ko irailaren 18ko 201/19 Alkatearen Dekretuaren berria ematen da:

“Ikusita honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2019-KALD-000003-00 zenbakiduna,

Ikusita Idazkari kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

Ikusita Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena,

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2019-KALD-000003-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2º	Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan gastuak	9.704,56 €
4º	Transferentzia Arruntak	8.234,50 €
6º	Inbertsio Errealak	4.421,34 €
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		22.360,40 €

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8º	Aktibo Finantzarioak (Diruzaintzaren gerakina)	22.360,40 €

FINANTZAKETA GUZTIRA	22.360,40 €
----------------------	-------------

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da kontu-hartzaile Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- Berri eman udalbatzari egingo behar den lehen bileran.”

Eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN GAIA

ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOEN BAJA EMATEAREN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

2019ko irailaren 18ko 199/19 Alkatearen Dekretuaren berria ematen da:

“Tokiko erakundeen ogasunen baliabideak zuzenbide publikoko eta zuzenbide pribatuko baliabidez osatuta daude. Aipatuta lehenbizikoaren artean, zergez gain, bestelako eskubide ekonomikoak ditugu. Bai batzuk bai besteek preskribituko dira lau urtez.

Era berean preskribatutako eskubideei baja eman behar zaie dagozkion kontabilitate – kontuetan, behin espediente izapidetuta.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita.

Horren aurrean eta Alkatetza honi, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaz onartutako Entitate Lokaletako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Arautegiko 41 art.-ko 21 lerroak adierazten dizkion eskuduntzen arabera,

ERABAKI DUT:

- 1.- Eskubide hauek baja eman 2019ko kontabilitatean: 42.308,14 €
- 2013ko ekitaldikoak: 16.852,37 €
 - 550.00.01.2013: 10.209,93 €
 - 113.00.01.2013: 5.564,44 €
 - 310.00.01.2013: 1.078 €
- 2014ko ekitaldikoak: 25.295,27 €
 - 399.00.01.2014: 18.150 €
 - 550.00.01.2014: 717,03 €
 - 113.00.01.2014: 5.621,24 €
 - 310.00.01.2014: 807,00 €
- 2015ko ekitaldikoak: 160,50 €

- 310.00.00.01.2015: 160,50 €
- 2.- Obligazioak baja eman 2019ko kontabilitatean:
-2018ko ekitaldian: 790,48 €
-160.230.00.00.2018: 724,23 €
-160.920.00.00.2018: 66,25 €
- 3.- Erabaki honen jakinaraztea Udalbatzari izaten duen lehen bileran. “

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BOSGARREN GAIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRU ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrak 2017ko martxoaren 24an lankidetzaren berri bat sinatu dute, administrazio elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri eramateko.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.c) artikulua ezartzen du gainerako administrazioei eman behar dietela haien eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz edo herritarrek arlo bati buruzko informazio osoa eskuratu ahal izateko behar duten informazioa.

Horretarako Eusko Jaurlaritzak Hitzarmen hau onartu du: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzte zerbitzu elektronikoen aprobetxamendu komuna egin dezaten eta, bestetik, informazio truka dezaten beraien artean.

Hitzarmen helburu nagusia edozein administrazioak egin dituen dokumentuak ez aurkezteko hiritarren eskubidea bermatzea.

Hori dela eta ,udalbatzak , aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Irurako Udalaren artean aipatu den lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Gorka Murua Macuso alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko

SEIGARREN GAIA

2019KO HERRIKO SAN MIGEL JAIEN EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurkeztu da, San Mielak 2019 herriko jaiak ,irailaren 20tik 29ra bitartean ospatuko ekintzak eta 48.000 €ko aurrekontua.

Proposamena 2019ko irailaren 5ko Kultura Batzorde Informatiboan aztertu da.

Eta bost boto alde (EH Bildu) eta lau boto aurka, (EAJ/PNV) hau erabaki da:

ERABAKIA

2019ko San Mielak, 2019 herriko jaien ekintzak eta aurrekontua onartzea.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du ez dela izan bilera horretan eta deialdia ez zuela jaso. Bileraren akta ez zaiola iritsi eta ez dela enteratu eta horregatik bozkatuko dutela aurka. Ez dela proposamenarekin ados ez daudelako, baizik eta ez direlako enteratu.

ZAZPIGARREN GAIA

KLIMA ALDAKETAREN AURKA KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

Larrialdi Klimatika datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzeraz etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetakoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoak, Berotegi Eftuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoak, beraz, guk eragiten dugun nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbizioz ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen,

nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko temperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrek egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrek ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

Hori horrela, Irurako EH Bilduko Udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du

1. Irurako Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.
2. Irurako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, berriki egin duen larrialdi klimatikoko adierazpenarekin bat, plan baten eta politika egokien bitartez premiazko neurriak har ditzala, egungo egoerari aurre egin diezaion karbonogabetzearen prozedura 2040ra aurreratzea ahalbidetuz.
3. Irurako Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeke neurriak hartzera premiatzen du.
4. Irurako Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.
5. Irurako Udalak Aldaketa Klimatikoaren eragiten duten udal eskumeneko faktore guztien inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeke hurbilpen lan bat egingo du 8 hilabeteko epean.
6. Irurako Udalak, udalerriko egoeraren diagnostika kontuan hartuta, prozesu parte-hartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen, kontzejuen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko dituen plangintza bat osatzeko 2020. urtean zehar.
7. Irurako Udalak, udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.
8. Irurako Udalak bat egiten du, larrialdi klimako egoera dela medio, irailaren 27an deituta dagoen nazioarteko grebarekin eta herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu.
9. Irurako Udalak Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritarrei.

10. Irurako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

Hori ikusita eta bost boto alde (EH Bildu) eta lau boto aurka (EAJ/PNV), Mozio hau onartu da.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak adierazi du EAJ/PNVko udal taldeak Irurako EAJ/PNV-k larrialdi klimatiko egoera deklaratzeko duela eta konpromiso batzuk hartu behar direla. Mozioaren puntu batzuekin ados daudela baina beraiek beste mozio bat daukatela: Lege Biltzarrean tramitatzen ari den legea proiektua koordinatuta Eudelekin. Beraien proposamena defendatuko dutela eta Mozioaren aurka bozkatuko dutela.

ZORTZIGARREN GAIA
IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago txostenik.

BEDERATZIGARREN GAIA
GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) galdetu du 176/19 Tolosaldeko Komunikazioari faktura agertzen den eta zeri doa.
Letizia Aristi zinegotziak (EH Bildu) erantzun du herri jaietako programak direla.
- b) Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) bi Alkate Dekretutan agertzen dela biltegiko atea konpontzeko kontratua eta ea eskatu diren beste aurrekontu batzuk.
Alkateak erantzun du bi aurrekontu eskatu direla. Hilabete batean jarriko dituela eta kontuan hartu direla urbanizazioaren etorkizuneko hobekuntzak.
- c) Beste Alkate Dekretu batean langile bat kontratatzen dela errefortzu bezala, ez daukala ezer langile horren aurka, baina langile hori ez dagoela obra brigadaren lan poltsan.
Alkateak erantzun du lan poltsan dauden langileei galdetu zitzaizela zer egoeratan zeuden eta ez zegoela inor prest. Orain beste lan poltsa berri bat martxan jarriko dela eta horregatik eskatu zitzaizela langileari lan hori egiteko.
- d) Alkatearen soldataren igoera hori bakarrik nahi duela argitzea eta eztabaida amaitzerako adierazi nahi duela oraingo alkatearen soldataren igoera %16,80 dela.

Alkateak erantzun du berak azaldu zuen ehunekoa kontu-hartzaileak pasatu zion datuekin kalkulatu zuela.

- e) Ekainen 26an Alkateak sinatu zuela dekretua udal erremolkea txatarrera eramateko eta oraindik kalean dagoela lekua okupatzen.

Alkateak erantzun du ibilgailua eraman behar duena okupatuta dabilela dirudienez eta berriz eskatuko zaiola.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA